



berriak

Triforio-tik

134 Zkia.
2024ko Urtarrila



araba
álava

Aiztogile kaleko 103an dagoen eraikinak **Jesús Ibisate Remón** izena izango du

Santa Maria Katedrala Fundazioaren Patronatuak, 2024ko apirilaren 25ean egindako bileran, Aiztogile kaleko 103 eraikinak Jesus Ibisate Remonen (2023an hila) izena izatea erabaki zuen, Santa Maria Katedrala zaharberritzeko lanetan mezenas gisa emandako laguntza handiarengatik.

Eraikin hori bereziki garrantzitsua da Fundazioarentzat, bertan zentralizatzen baita bere hezkuntza-jarduera.

Akordio horren bitartez, plaka bat egin da, eta dagoeneko jarrita dago eraikin honetan barruan.



100.000 lagun baino gehiagok bisitatu zuten Santa Maria 2024an

Urte bikaina. Horrela kalifika daiteke iaz katedralean izandako bisita-kopurua. Guztira 101.305 pertsona hurbildu ziren Santa Maria katedralera 2024an, 100.000 laguneko muga gainditzen duen kopurua. Izan ere, bigarren aldiz lortu da gainditzea, aurreko urtean 101.282 bisitari izan baitziren. Gainera, nabarmendu beharreko beste datu bat da bisitak gidatuak direla. Kopuru horrek "Obretan eta irekita" programak urtero lortzen duen arrakasta eta onarpenera ziurtatzen dute.



KATEDRALA BERRIRO FITURREN

Santa Mariak berriz ere presentzia nabarmena izango du Euskadiko erakargarri turistikoaren artean, urtarrilaren 22tik 26ra Madrilén egingo den Nazioarteko Turismo Azokan, Fiturren. Beste batzuetan bezala, katedrala Basquetourrekin egongo da Gasteizko Udalaren standean.

Santa Mariak interes handia pizten jarraitzen du Fiturrera joaten diren bisitarien artean. Hain zuzen ere, erreferentziazko azoka da turismo-sektorean eta liderra mundu-mailako merkatu hartzaile eta igorleetan. Katedralak erakutsiko dituen erakargarrien artean, 'Obretan eta irekita' programa, bisita gidatuak, errealitate birtualeko esperientziak eta urtean zehar egiten diren kultur jarduerak aurkitzen dira.

Santa Mariako hilobi zaharrenak

Ez dugu ziur ezagutzen transeptuaren hegoaldeko besoan zizelkatuta dauden irudien identitatea, baina, haien armarren heraldika dela-eta, jakin badakigu lñiguezarren leinukoak direla.

Beste kasu batzuetan bezala, hilobi horiek elizaren barruan izateko eskubidea eskuratzeko, pertsonaia horiek Katedrala eraikitze lanetan lagundu behar izango zuten ekonomikoki; beraz, tenpluaren fundatzaile-kide gisa har ditzakegu.

Katedralaren barruan egindako indusketa arkeologikoen arabera, kapera horien erdia hilobi exentu monumental bana zeuden, 1300. urte ingurukoak. Gaur egun, hilobi horiek ikus ditzakegu Hirutasun Santuaren eta Santa Anaren kaperen arteko horman. Gotiko estilokoak dira, eta hilobi itxurako horma-hobi gisa babestuta daude, profil baketonatuko bi arku zorrotzez, armarriz eta inskripzioz errematatuta.

Lehenengoa, argazkiaren ezker aldean dagoena, etzanda dago, tunika luzea eta mantu estua jantzita, eta pertsonaiaren izaera zibila agerian uzten du. Begiak irekita ditu, eta betiko bizitzatik esnatzeari erreferentzia egiten dio. Bizarra eta ile luzea ditu, bonete xume batez partzialki estalita.

Eskuineko hilobia ere apaingarri soilekoa da, aurrekoak baino tratamendu plastikoagoa eta naturalistagoa izan arren. Etzanda dago, tunika eta mantuarekin, baina zaldun izaerari erreferentzia egiten dio, orpoetan ezproiak baititu eta ezkerreko eskuarekin eskularru bati eusten baitio. Oinetan – kasu horietan ohikoa izaten den moduan- txakur bat du, hildakoaren fideltasunaren eta kategoriaren ikurra. Hildakoaren burualdean, berriz, partzialki moztutako bi aingerutxo daude, hildakoaren burkoari eskuekin eutsiz.

Informazio gehiago nahi izanez gero: arte.catedralvitoria.eus

Bibliografía:

AZCÁRATE RISTORI, José M.ª de. "Catedral de Santa María (catedral Vieja)". PORTILLA VITORIA, Micaela J. et al. Gasteizko Elizbarrutiko Monumentu Katalogo: Gasteiz Hiria. Vitoria-Gasteiz: Udal Aurrezki Kutxaren Kultur Obra, III. liburukia, 1968, 97-98 or.

LAHOZ, Lucía M.ª "Sepulcros góticos de la catedral de Vitoria". *Sekzio Koadernoak, Arteplastikoak eta dokumentalak*, 11, 1993, 73-91 or.



Hilobien gaur egungo argazkia, transeptuaren hegoaldeko besoan



lñiguezarren hilobien berreraikuntza birtuala, 1300. urte inguruan.



Argazkiaren ezkerreko hilobiaren xehetasuna



Argazkiaren eskuineko hilobiaren xehetasuna



2024an katedralean egindako gauza nabarmenenak gure Flickr-en

lazko urtea jardueraz betetakoa izan da, zaharberitze-lanei, kultur ekitaldiei, turismo-zabalkundeari eta ondarearen kontserbazioari dago kienez. Hori dela-eta, zenbait irudi adierazgarri bildu ditugu Flickr-eko gure karpetan, unerik onenak gurekin gogora ditzazuen.

Irudiaren QR kodea irakurtzen baduzu, **2024ko albumera** eramango zaitu zuzenean.

Eskerrik asko guri laguntzeagatik eta zeregin zoragarri honen protagonista izateagatik!

JARRAI GAITZAKEZU:



AbiertoPorObras



@CatedralVitoria



CatedralVitoria



Katedraldea



@catedralvitoria